

# Informazioaren Barne Sistemaren Kudeaketaren Prozedura

---

Nafarroako Enpresa-Korporazio Publikoa  
(CPEN)

1. bertsioa, CPENeko Administrazio Kontseiluak 2023ko ekainaren 12an onartua

The logo for CPEN (Nafarroako Enpresa-Korporazio Publikoa) is located in the bottom left corner. It consists of a light blue circle partially enclosed by a red arc. The letters 'cpen' are written in a lowercase, red, sans-serif font within the light blue circle.

cpen

## EDUKIA

1.	PROZEDURA HONEN HELBURUA.....	<b>Error! Bookmark not defined.</b>
2.	CPEN-EN INFORMAZIOAREN BARNE SISTEMAREN IRISMENA .....	4
2.1	CPENen Informazioaren Barne Sistemaren integratutako kanalak.....	4
2.2	Aplikazio eremu materiala: Barne Sistemak babestutako komunikazioak .....	5
2.3	Aplikazio eremu pertsonala: Babesa duten pertsonak.....	6
3.	INFORMAZIOAREN BARNE SISTEMAREN ARDURADUNA .....	7
4.	CPEN-EN INFORMAZIOAREN BARNE KANALAREN FUNTZIONAMENDUA .....	7
4.1	Informazioa segurtasunez komunikatzeko erabilitako neurri teknikoak .....	7
4.2	Nola egin komunikazio bat informazioaren barne kanalaren bidez .....	8
4.3	Barne kanalaren bidez egindako komunikazioen hartzaileak .....	8
5.	KANALEAN JASOTAKO INFORMAZIOAK KUDEATZEKO PROZEDURA .....	8
5.1.	PROZEDURAREN HASIERAKO FASEA .....	8
5.1.1.	Komunikazioak jaso eta erregistratzea .....	8
5.1.2.	Jaso izanaren adierazpena informatzaileari.....	9
5.1.3.	Hasierako analisiaren fasea eta izapidetzeko onartzea/ez onartzea .....	9
5.1.3.1.	Ez onartzeko arrazoi tasatuak.....	9
5.1.3.2.	Izapidetzeko onartzea.....	10
5.1.3.3.	Datu pertsonalak ezabatu eta gordetzea.....	10
5.2.	IKERKETAREN FASEA .....	11
5.2.1.	Instruktoarearen izendapena .....	11
5.2.2.	Ikerketan zehar prebentzio/kautela neurriak hartzeko aukera .....	12
5.2.3.	Ikerketa-fasean dauden informazio-betebeharrak.....	12
5.2.3.1.	Delitu zantzuak izanez gero, Administrazio Kontseiluari jakinaraztea .....	12
5.2.3.2.	Jakinarazpena jaso duen pertsonari informazioa ematea - Elkarrizketa... ..	12
5.2.3.3.	Komunikazioan aipatzen diren hirugarrenei datu pertsonalei buruzko informazioa, ukitua ez dena .....	14
5.2.4.	Ikerketaren garapenean egin daitezkeen jarduerak .....	14

5.2.5.	Instrukzioan lortutako informazioa aztertu eta aldaratzea .....	14
5.3.	IKERKETAREN AMAIERAKO FASEA .....	15
5.3.1.	Prozeduraren amaiera .....	15
5.3.1.1.	Ikerketaren txostena .....	15
5.3.1.2.	CPEN Informazioaren Barne Sistemaren Batzordearen ebazpena .....	15
5.3.2.	Ikerketaren iraupena .....	16
5.3.3.	Informazio-erregistroa .....	16
6.	IKERKETAREN BESTE BARNE-PROZEDUREI BURUZKO INFORMAZIOA .....	16
6.1	Sexu eta lan jazarpenaren prebentzio eta jarduketa protokoloa.....	17
6.2.	Iruzurraren aurkako neurrien planari lotutako irregularitasunen jakinarazpena .....	17
7.	INFORMAZIOAREN KANPO-KANALEI BURUZKO INFORMAZIOA.....	17
8.	CPENen INFORMAZIOAREN BARNE SISTEMAREN BERMEAK .....	19
8.1.	Konfidentzialtasun-bermeak.....	19
8.2.	Errepresaliarik eza eta informatzaileari laguntzeko eta babesteko neurriak bermatzea .....	19
8.3.	Eragindako pertsonen errugabetasun-presuntzioa .....	21
8.4.	Datu pertsonalen babesa.....	21
9.	PROZEDURA HAU BETETZEKO BETEBEHARRA, IKUSKAPENA.....	23
10.	PROZEDURA HONEN ONESPENA ETA PUBLIZITATEA.....	24

# 1. PROZEDURA HONEN HELBURUA

NAFARROAKO ENPRESA-KORPORAZIO PUBLIKOA (hemendik aurrera, CPEN) jabetzen da jokabide irregularrek kalte egiten dietela erakundeari, bereziki, eta gizarte osoari, oro har. Hori dela eta konpromiso etiko eta arduratsuan, eta jokabide horiei aurrea hartu eta antzemateko eta horiei buruzko informazioa ematen dutenak eraginkortasunez babesteko, CPENen Administrazio Kontseiluak erabaki du Erakundeak Informazioaren Barne Sistema izatea, antolakuntzari zuzendutako tresna gisa. Arau-urratzei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak arautzen dituen otsailaren 20ko 2/2023 Legearen arabera arau-hausteak atzemateko sistema izango da (aurrerantzean, informatzailea babesteko legea).

Informazioaren Barne Sistemaren funtsezko zati gisa, CPENek informazioko barne kanala prestatu du, eta, horren bidez, informazioa ematen duena babesteko Legeak aurreikusitako arau-hausteen berri eman ahal izango die lege horren aplikazio eremuan dauden pertsona guztiei eta pertsona horiei babes egokia emateko neurriak dituen. Aipatutako legean xedatutakoa betetzeko, eta informazioaren barne-kanal horren aplikazioa eta kudeaketa bermatzeko, haren aurreikuspenen arabera, CPENen Administrazio Kontseiluak Informazioaren Barne Sistema Kudeatzeko Prozedura hau (hemendik aurrera, Prozedura) onartu du.

## 2. CPEN-EN INFORMAZIOAREN BARNE SISTEMAREN IRISMENA

### 2.1 CPENen Informazioaren Barne Sisteman integratutako kanalak

CPENen Informazioko Barne Sistema informazio bakarreko barne-kanal batek osatzen du, CPENen informazioaren barne kanalak, eta horren bidez jakinarazi behar dira 2.2 atalean deskribatutako aplikazio eremuan aurreikusitako arau-hauste guztiak, Prozedura honetako 6. paragrafoan zehaztutako gaiei buruzkoak barne.

CPENen Informazioaren barne kanalez besteko bitartekoez baliatuz, Prozedura honen aplikazio eremuan sartzen diren jakinarazpenak jasotzen dituen erakundearen edozein pertsonak berehala bidali beharko du, kanal horren bidez, jasotako informazioa eta behar den konfidentziasuna gorde beharko

du beti. Informatzailea babesteko legeak arau-hauste oso larritzat jotzen du edozein pertsonak konfidentzialtasun-berme hori haustea.

## 2.2 Aplikazio eremu materiala: Barne Sistemak babestutako komunikazioak

Prozedura honek 2.3 ataleko pertsonen babesa emango die, baldin eta:

- CPEN delakoarekin zerikusia duten arau-hausteen berri ematen badute, lan –edo lanbide- testuinguruan informazioa lortu badute eta gai horiei buruzkoak badira:
- Europar batasuneko zuzenbidearen arau-haustek, baldin eta:
  - 2019ko urriaren 23ko Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2019/1937 (EB) Zuzentarauaren eranskinean (2019ko urriaren 23koa, Europar Batasuneko zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa) zerrendatutako Europar Batasunaren egintzen aplikazio eremuaren barruan sartzen dira, barne-ordenamendu juridikoak arau-hausteei buruz egiten duen kalifikazioa edozein dela ere. Eranskin honetan zerrendatutako gaiak: I.- kontratazio publikoa, II – zerbitzuak, produktu eta merkatu finantzarioak eta kapitalen ziriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzea, III – produktuen segurtasuna eta adostasuna, IV – garraioaren segurtasuna, V – ingurumenaren babesa, VI – erradiazioen eta segurtasun nuklearraren aurkako babesa, VII – elikagaien eta pentsuen segurtasuna, animalien osasuna eta animalien ongizatea, VIII – osasun publikoa, IX – kontsumitzaileen babesa eta X – pribatutasunaren eta datu pertsonalen babesa eta informazio sare eta sistemen segurtasuna.
  - Europar Batasunaren finantza-interesei eragiten dietenean, Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (TFUE) 325. Artikuluan jasotzen den moduan; edo
  - Barne-merkatuan eragina izatea, TFUEren 26. Artikuluaren 2. Paragrafoan jasota dagoen bezala, barne direla lehiaren eta Estatuak emandako laguntzen arloko Europako Batasuneko arauak haustea, bai eta barne-merkatuari buruzko arau-haustek ere, sozietateen gaineko zergaren arauak hausten dituzten edo sozietateen gaineko zergari aplikatu beharreko legeriaren xedea desitxuratuko duen abantaila fiskala lortzea helburu duten jardueren dagokienez.
- Arau-hauste penal edo administratibo larriak edo oso larriak eta, betiere, baldintza hauek betetzen badira:
  - a) Arrazoi egokiak izan ditzatela pentsatzeko informazioak gai horiei buruz ari dela eta komunikazioaren unean egiazkoa dela, nahi eta froga eztabaidaezinez aurkeztu.
  - b) Jakinarazpena prozedura honetan aurreikusitako eskakizunen arabera egin bada, informatzailea babesteko Legea aplikatuz.

Babes-neurri horietatik kanpo daude informazioa ematen duten pertsonak:

- a) Eremu material xehatuan ez dauden ekintzei edo ez-egiteei buruzkoak izatea.
- b) Informazioaren barne-kanalen batek edo 5.1.3. atalean aurreikusitako arrazoiren batek onartu ez dituen komunikazioetan egotea.
- c) Pertsonen arteko gatazkei buruzko erreklamazioei buruzkoak edo informatzaileari eta komunikazioaren xede diren pertsoneri soilik eragiten dietenak.
- d) Jendearentzat guztiz eskuragarri egotea edo zurrumurru hutsak izatea.

### **2.3 Aplikazio eremu pertsonala: Babesa duten pertsonak**

Prozedura honek babesa emanen die 2.2. atalean zehaztutako eremu materialeko arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsona fisiko hauei, baldin eta informazioa lan-edo lanbide – testuinguru batean lortu badute:

- CPENekin lotura duten langileak, baita harreman hori amaituta dagoenean ere, I.- langileak, II – boluntarioak, III- bekadunak, IV- prestakuntzaldian dauden langileak, V – amaitutako lan –edo estatutu-harremanetan izandako gertaeretan enplegatu izandako langile ohiak. VI – hautapen prozesuan edo kontratu aurreko negoziazioan lortutako informazioari dagokionez, lan – harremana edo estatutu-harremana hasi ez den hautagaiak;
- CPENen Administrazio Kontseiluko akziodunak, partaideak eta pertsonak, erakundearen zuzendaritza edo ikuskapena, kide ez-exekutiboak barne.
- Autonomoak edo CPENen kontratista, azpikontratista eta hornitzaileen gainbegiratze eta zuzendaritzapean lan egiten duen edozein pertsona.

Era berean, honako hauei ere aplikatuko zaizkie prozedura honetan aurreikusitako babes-neurriak:

- Langileen legezko ordezkariak, informatzaileari aholku emateko eta laguntzeko eginkizunetan ari direnak.
- Informatzaileak lan egiten duen erakundearen esparruan, prozesuan bertan parte hartzen duten pertsona fisikoak.
- Informatzailearekin harremana duten eta errepresaliak izan ditzaketen pertsona fisikoak (lankideak, senideak), eta
- Informatzaileak lan egiten duen pertsona juridikoak edo lan testuinguru batean edo partaidetza esanguratsua duten beste edozein harreman-mota duten pertsona juridikoak

Babes-neurri horietatik kanpo daude, berariaz, atal honetan zehaztutako babes-eremu subjektiboan sartzen ez diren pertsonak.

### 3. INFORMAZIOAREN BARNE SISTEMAREN ARDURADUNA

Administrazio Kontseiluak Informazioaren Barne Sistemaren Batzordea izendatu du kide anitzeko organo gisa, sistemaren kudeaketa arduratsua ziurtatzeko eta CPENen barneko informazio-kanalaren bidez jakinarazitako informazioen jarraipena egiteko. Batzorde honek bere eginkizunak Erakundeko gainerako organoekiko independentziaz eta autonomiaz beteko ditu, ezin izanen du inolako jarraibiderik jaso bere jardunean eta horretarako behar diren giza baliabide eta baliabide material guztiak eduki beharko ditu.

CPENen Informazioaren Barne Sistemaren Batzordea lau kide hauek osatuko dute:

- CPEN, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa ( CPEN) kide den enpresa-taldeko sozietate nagusiko bi kide: CPENeko Giza Baliabideen Saileko Zuzendaritza eta CPENeko Delituen Prebentziorako Arduraduna.
- CPENen taldeko bi kide: CPENen Giza Baliabideen Saileko Zuzendaritza eta CPENen Finantza Zuzendaritza.

### 4. CPEN-EN INFORMAZIOAREN BARNE KANALAREN FUNTZIONAMENDUA

#### 4.1 Informazioa segurtasunez komunikatzeko erabilitako neurri teknikoak

Informazioaren Barne Sistema modu seguruan kudeatzen dela ziurtatzeko, CPENek aplikazio informatikoa du komunikazioak bidaltzeko bere informazio barne kanalaren bidez, modu seguru eta konfidentzian, eta arlo horretako araudiaren eta, bereziki, informatzailea babesteko legearen eskakizun guztiak betetzen ditu, Prozedura honetan jasotzen direnak.

CPENek erakundearen informazioaren barne kanalaren euskarrirako hartu duen soluzio tekniko horrek neurri tekniko eta antolatzaile egokiak ditu informatzailearen, eragindako pertsonen eta komunikazioan aipatutako beste edozeinen datuen identitatea gordetzeko eta konfidentziasuna bermatzeko, bai eta komunikazioan garatzen diren jarduketan identitatea eta konfidentziasuna bermatzeko ere. Plataformak, halaber, komunikazioak idatziz, ahoz eta bi modutan aurkezteko aukera emango du, betiere konfidentziasuna bermatuz. Era berean, tresna honek datu pertsonalak

babesteko araudia betetzeko bermeak ditu, eta baimenik gabeko langileak sartzea eragozten du.

#### **4.2 Nola egin komunikazio bat informazioaren barne kanalaren bidez**

Prozedura honetako 2. paragrafoan jasotako eremuan sartzen den SSPPren barruko informazio-kanalaren bidez edozein komunikazio egiteko, [www.sociedadespublicasdenavarra.es](http://www.sociedadespublicasdenavarra.es) webgunera jo beharko da, eta informatzaileak beharrezkotzat jotzen duen informazioa aurkeztu. Ahal den neurrian eta komunikazioak kudeatu eta ikertzeko barne-prozesuak arintzeko, igorritako informazioa ahalik eta deskribatzaileena eta euskarriena izatea gomendatuko da.

Komunikazioa egin ondoren, sistemak identifikazio-kodea emango dio informatzaileari, CPEN eta informatzailearen arteko harremana ahalbidetzeko, nahiz eta komunikazioan anonimatu aukeratu.

#### **4.3 Barne kanalaren bidez egindako komunikazioen hartzaileak**

CPENen informazioaren barne kanalaren bidez egiten diren komunikazioak Informazioaren Barne Sistemaren Batzordeko kide guztiek jasoko dituzte, nahiz eta, interes-gatazkarik izanen gero, horietako batzuk izapidetzeko onartzen diren komunikazioen ikerketatik baztertzeko aukera dagoen. Informazioa Batzorde honetako edozein kideri buruzkoa bada, eta eragindako pertsonak komunikaziorako sarbidea izan ez dezan, informatzaileak CPENen informazioaren barne-kanalera lehenengo jakinarazpena bidali ahal izango du, eta bertan adieraziko du informazioak berak eta zehazki zein kidek duen eragina identifikatu gabe. Batzordeak lehenengo jakinarazpen hori jaso ondoren, Batzordeak beste bidea eskainiko dio bere kideekin harremanetan jartzeko, informatzaileak informazioa jaso ez duten Batzordeko pertsonengana jo ahal izan dezan eta informazioa beste kide batzuei soilik eman diezaieten.

## **5. KANALEAN JASOTAKO INFORMAZIOAK KUDEATZEKO PROZEDURA**

### **5.1. PROZEDURAREN HASIERAKO FASEA**

#### **5.1.1. Komunikazioak jaso eta erregistratzea**

Komunikazioa jaso ondoren, erregistratu egingo da, eta identifikazio-kodea esleituko zaio.



### 5.1.2. Jaso izanaren adierazpena informatzaileari

Jakinarazpena jaso eta hurrengo zazpi egun naturaleko epean, jakinarazpena jaso izanaren agiria bidaliko zaio informatzaileari, bidalitako hartu-agiriak jakinarazpenaren konfidentzialtasuna arriskuan jartzen ez badu behintzat.

Hartu-agiriarekin batera, Pribatutasun Politika eta CPENen datu pertsonalak tratatzeko Politika bidaliko zaizkio informatzaileari, eta berariaz jakinaraziko zaio bere nortasuna erreserbatua izango dela beti, eta ez zaiela jakinaraziko aipatutako gertakariak aipatzen dituzten pertsonen, ez eta hirugarrenei ere, ikerketako barne-prozeduratik kanpo. Halaber, informatzailearen eta Informazioaren Barne Sistemaren Batzordearen artean komunikazioak izateko aukeraren berri emango zaio, barneko informazio-kanalaren bidez, eta, beharrezkoa izanez gero, informazio gehigarria eskatuko zaio.

### 5.1.3. Hasierako analisiaren fasea eta izapidetzeko onartzea/ez onartzea

Komunikazioa erregistratu ondoren, jakinarazitako gertaeretan eta agerian jarritako inguruabarretan oinarrituta, Informazioaren Barne Sistemaren Batzordeak alde zuzeneko azterketa egingo du, komunikazioa prozedura honen 2. Paragrafoan jasotako eremuaren barruan dagoen egiaztatze, eta, ondorioz, erabakiko du ikerketa hasten duen edo komunikazioa artxibatzen duen ez onartzeagatik.

#### 5.1.3.1. Ez onartzeko arrazoi tasatuak

Jasotako jakinarazpena ez da onartuko eta artxibatu egingo da, ez onartzeko arrazoi hauetako batean aipatzen diren kasuetan, eta horretarako arrazoiak justifikatu eta dokumentatuko dira:

- a) Aipatutako gertaerak Prozedura honetako 2. Ataleko aplikazio materialaren eta pertsonalaren esparruan sartzen ez direnean.
- b) Kontatutako gertakariak egiantzik ez dutenean edo funtsik ez dutenean.
- c) Jakinarazitako informazioa delituen bidez lortu dela adierazten duten arrazoizko zantzuak daudenean.
- d) Aurreko komunikazio bati buruzko informazio berri eta esanguratsurik ez duenean, baldin eta komunikazio horri dagozkion prozedurak amaitu badira eta izapidetzen ari badira, non eta ez den beste jarraipen bat justifikatzen duen egitatezko edo zuzenbideko inguruabar berririk aurkezten.

Informazioaren Barne Sistemaren Batzordeak uste badu jakinarazpena ez onartzeko kasu horietakoren batean sartzen dela, inguruabar horren berri eman beharko zaio idatziz informatzaileari, ez onartzeko arrazoia zehaztuz.

### 5.1.3.2. Izapidetzeko onartzea

Jakinarazitako egitate edo omisioak aurreko atalean aipatu ez diren kasuetakoak ez badira, aztertu egingo da komunikazioak gutxieneko baldintza hauek betetzen ote dituen ikertzeko.

- a) Nahikoa deskribapen, jakinarazitako gertaerak eta haien egiantza identifikatzeko.
- b) Informazioa oinarritzen den dokumentazioa ematea edo non dagoen jakiteko oharrak ematea,edo hori egiaztatzeo aukera ematen duten zantzu objektiboak ematea.

Gutxieneko baldintza horiek betez gero, jasotako jakinarazpena tramitera onartuko da eta ikerketa irekiko da. Inguruabar hori idatziz jakinarazi beharko zaio informatzaileari.

Aitzitik, gutxieneko baldintza horiek betetzen ez badira, informatzaileari eskatu beharko zaio 10 eguneko epean ikerketa egiteko behar den informazioa eman dezala. Epe hori igaro eta eskatutako informazioa jaso ez bada, komunikazioa artxibatuko da, ezin delako ikertu, baina ikerketa etorkizunean hasi ahal izango da, horretarako behar beste elementu izanez gero.

### 5.1.3.3. Datu pertsonalak ezabatu eta gordetzea

Atariko analisiaren fase honetan edo prozeduraren beste edozein fasetan hauetakoren bat gertatzen bada, berehala ezabatuko dira datu pertsonalak.

- Komunikazioa edo artxibatzea onartzen ez bada, ikertzeko ezintasunagatik.
- Komunikazioak izan ditzakeen RGPD 9.artikuluaren arabeko kategoria bereziko datuak, datu horiek erregistratu edo tratatu gabe.
- Jakintzarako eta ikerketarako beharrezkoak ez diren datuak, prozedura honen 2. Paragrafoan zehaztutako eremuan sartzen ez diren jokabideei buruzkoak eta komunikatu ahal direnak, informazio jakin bat tratatzeko egokia ez den datuak edo ezusteko bildutakoak.
- Emandako informazioa edo haren zati bat egiazkoa ez dela egiaztatzen bada, berehala ezabatu beharko da, inguruabar horren berri izaten den unetik, salbu eta egiazkotasun falta hori ez-zilegitasun penala izan badaiteke; kasu horretan, prozedura judiziala izapidetzen den bitartean gordeko da informazioa.

Jasotako informazioei eta horien ondoriozko ikerketei buruzko datu pertsonalak beharrezkoa eta egokia den aldian bakarrik gordeko dira, informazioa ematen duena babesteko legea betetzeko . bereziki, prozedura honetako 8.4 atalean aurreikusitakoa hartuko da kontuan. Datuak ezin izanen dira inola ere hamar urtez baino gehiagoz gorde.

Tratatzen diren datuak CPENen Informazioaren Barne Sistemaren gorde ahal izango dira, baina soilik informatutako gertakariei buruzko ikerketa hastea bidezkoa den erabakitze behar den denboran.

Nolanahi ere, jakinarazpena jaso eta hiru hilabete igaro ondoren ez bada ikerketa-jarduerarik hasi, kendu egin beharko da, kontserbazioaren helburua sistemaren funtzionamenduaren ebidentzia uztea ez bada. Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 32. Artikuluan aurreikusitako blokeo-betebeharra aplikatu gabe, bideratu ez diren komunikazioak modu anonimoan jasoko dira.

## **5.2. IKERKETAREN FASEA**

Jasotako komunikazioa tramitera onarturik eta hura ikertzeko beharrezkoak diren gutxieneko baldintzak beteta, fase hau hasiko da, eta bertan jasoko dira kontatutako gertaeren egiantza egiaztatze jarduketak.

### **5.2.1. Instruktoaren izendapena**

CPENen Informazioaren Barne Sistemaren Batzordeak zuzenean instruitu ahal izango du, informatzailea babesteko Legeak adierazten duen bezala, edo pertsona bat/batzuk izendatu ahal izango ditu instruktore gisa. Pertsona hau/hauek CPENeko beste sail edo departameto batzuetako kidea/ak izan daitezke, edo beste pertsona batzuk Erakundetik kanpokoak. Azken kasu honetarako, beharrezkoa izango da, kanpoko hauei dagokienez, zerbitzuak emateko kontratua izatea, datu pertsonalak tratatzeko arduradunaren kontratua izatea eta konfidentzialtasun-hitzarmena ezartzea.

Instrukzioa Informazioaren Barne Sistemaren Batzordeak zuzenean egiten ez badu, instruktore izendatzen den pertsonari Informazioaren Barne Sistemaren Politikari eta CPEN erakundeak onartutako Informazioaren Barne Sistema Kudeatzeko Prozedura honi buruzko informazioa eman beharko zaio jarduerak hasi baino lehen, bai eta jarraibide hori isilpean gordetzeko betebeharrari buruzkoa ere. Bestalde, instrukzio-egilezat izendatutako pertsonak, instrukzioa hasi baino lehen, zein sail edo pertsonari ikertu edo eskatu behar zaion informazioa eman beharko dio Batzordeari, eta, ikerkuntzan zehar, horren bilakaeraren berri eman.

Ikerketa hau egiteko bateraezintasunik edo interes-gatazkarik izanez gero, CPENen Informazioaren Barne Sistemaren Batzordeak ikerketatik kanpo utzi beharko du egoera horietan dagoen pertsona.

### **5.2.2. Ikerketan zehar prebentzio/kautela neurriak hartzeko aukera**

CPENen Informazioko Barne Sistemaren Batzordeak, ikerketaren edozein fasetan eta hori izapidetzeko beharrezko epea aparte utzi gabe, zuzendaritzari prebentzio-neurriak edo kautelazko neurriak hartzeko proposamena egin ahal izango dio, arauak ez betetzeari uzteko, horien ondorio kaltegarriak murrizteko edo prozedura honetako 2.3 ataleko pertsonak errepresalien aurrean babesteko.

Instrukzioa CPENen Informazioaren Barne Sistemaren Batzordeak zuzenean egiten ez badu, instruktore izendatutako pertsonak kautelazko neurri horiek proposatu ahal izango dizkio Zuzendaritzari, Sistema Batzordearen bidez.

### **5.2.3. Ikerketa-fasean dauden informazio-betebeharrak**

CPENen Informazioaren Barne Sistemaren Batzordeak edo instruktore izendatutako pertsonak ikerketa-fasean informatzeko betebeharrak hauek bete beharko ditu:

#### **5.2.3.1. Delitu zantzuak izanez gero, Administrazio Kontseiluari jakinaraztea**

Jakinarazitako informaziotik edo ikerketaren edozein fasetatik delitu izan daitezkeen zantzu-egintzak ondoriozta badaitezke, CPENeko Informazioaren Barne Sistemaren Batzordeak berehala jakinarazi beharko dio egoera hori CPENeko Administrazio Kontseiluari, Kontseilu honek erabaki dezan babes-lege honetako 9.2.j) artikuluan xedatutako baldintzak betetzen diren ala ez. Administrazio Kontseiluak delituren bat egin dela uste badu, Kontseiluak jarraibideak emango ditu informazioa Ministerio Fiskalera edo Europako Fiskaltzara EBren finantza-interesei eragiten dieten kasuetan igortzeko moduari buruz.

Ikerketa CPENeko Informazioaren Barne Sistemaren Batzordeak zuzenean egiten ez badu eta delitu izan daitezkeen zantzuak atzematen badira, Instruktore izendatutako pertsonak berehala jakinaraziko dio sistemaren Batzordeari, aurreko paragrafoan azaldu bezala jardun dezan.

#### **5.2.3.2. Jakinarazpena jaso duen pertsonari informazioa ematea - Elkarrizketa**

Jakinarazpena jaso duen pertsonari hauen berri emango zaio:

- Egozten zaizkion egintza edo omisioak, egitateen zerrenda labur batekin, baina ez zaio inoiz informatzailearen identitatearen berri emanen eta ez zaio komunikaziorako sarbiderik emanen.
- Errugabetasun-presuntziorako, ohorerako, edozein unetan entzuna izateko, defentsarako, espedientea eskuratzeko alegazioak idatziz aurkezteko eta abokatuaren laguntzaz agertzeko eskubidea.
- Pribatutasun-politikari eta CPENen datu pertsonalak tratatzeari buruzko informazioa, prozedura honetako 8.4 atalean aurreikusitakoa kontuan hartuta.
- Prozedura honetako txostengileek jasotzen duten babes bera izateko eskubidea, haien nortasuna zainduz eta ikerketaren egitate eta datuen konfidentzialtasuna bermatuz.

Eragindako pertsonak ahalik eta lasterren ezagutu beharko ditu aurreko alderdiak. Hala ere, ikerketaren amaiera ona bermatzeko, kaltegarria izan daiteke eragindako pertsonari egozten zaizkion egitateen berri ematen bazaio, batez ere, ikerketaren fase goiztiar batean probak ezkutatu, suntsitu edo aldatzeari dagokionez. Hori dela eta, CPENen Barne Sistemaren Batzordeak edo instruktore izendatutako pertsonak dagokion pertsonari jakinarazpen hori egiteko zentzuzko denbora eta modu egokia baloratuko ditu. Komunikazioa atzeratzen bada, arrazoiak dokumentatu eta egiaztatu beharko dira, komunikazioa atzeratzeko erabakia hartu aurretik.

Eragindako pertsonak alegazioak idatziz aurkezteko edo ikerketa-prozesuan zehar edozein gorabehera edo gertaeraren berri emateko duen eskubidea ukatu gabe, instrukzioak, ahal den guztietan, ukitutako pertsonarekin elkarrizketa izango du, eta elkarrizketa horretan, errugabetasun-presuntzioa erabat errespetatuta, gertaeren bertsioa azaltzeko eta egokitzen jotzen dituen frogabideak emateko eskatuko zaio.

Atal honen hasieran deskribatutako xehetasunekin informazioak eragindako pertsonari jakinarazpena atzeratzen bazaio, aurrez aurreko bilera edo entzundaldi-izapide horretan ere egin ahal izango da, baldin eta aldeztu aurretik aurkezteak probak ezkutatzea, suntsitzea edo aldatzea erraztu badezake.

Ukitutakoaren defentsa eskubidea bermatzeko, interesdunak espedientea ikusteko aukera izanen du hala eskatzen badu, informatzailea identifika dezakeen informaziorik eman gabe. Informazioaren izaera edo bertan azaldutako egitateak direla-eta, informatzailearen edo hirugarrenen identitatea argia edo erraz identifikatzeko modukoa bada, informatzailearen espedientea eskuratzeko eskubidea ere atzeratu ahal izango da, harik eta informatzailearen edo hirugarrenen identitatearen konfidentzialtasuna ziurtatzeko beharrezko bermeak hartu arte.

### 5.2.3.3. Komunikazioan aipatzen diren hirugarrenei datu pertsonalei buruzko informazioa, ukitua ez dena

Ikertutako komunikazioan jakinarazpenak eragindakoa ez den beste pertsona batzuei buruzko informazioa agertzen bada, CPENen Informazioaren Barne Sistemaren esparruan beren datu pertsonalak tratatzeari buruzko informazioa ere eman beharko zaie.

Hala ere, kasu jakin batzuetan, ikertutako komunikazioetan aipatutako pertsona guztiei informazioa emateak neurritz kanpoko ahalegina eragin dezake, beraz, kasu zehatz bakoitza aztertu eta analisi haztatua egin beharko da.

### 5.2.4. Ikerketaren garapenean egin daitezkeen jarduerak

Ikerketaren barruan sartuko dira aipatu diren egitateen egiantzekotasuna egiaztatzeko egiten diren jarduketak guztiak, eta, aurreko 5.2.3.2 atalean deskribatu den pertsonari egindako elkarrizketaz gain, CPEN Informazioaren Barne Sistemaren Batzordeak edo instruktore izendatutako pertsonak honelako jarduketak sartu ahal izango ditu.

- INFORMATZAILEARI INFORMAZIO GEHIGARRIA ESKATZEA: Informazio gehigarria, ebidentzia berriak edo frogak eskatu ahal izango zaizkio informatzaileari prozeduraren edozein alditan, ikerketaren irismena, tartean diren sailak eta pertsonak eta ikerketa behar bezala burutzeko behar diren alderdi guztiak.
